

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mutiloa



Aurkibidea

Udalerria: Mutiloa

Sarrera



Goierri eskualdea osatzen duten 18 herrietako bat da. Oria ibaiaren goiko aldeko ibaibidearen inguruan kokatua eta Gipuzkoako hegoaldean. Iparraldean Gabiria eta Ormaiztegi, hegoaldean Zerain eta Segura, ekialdean Idiazabal eta mendebaldean Legazpi udalerriak mugakide ditu. Iraganean meatzaritza zen bere jarduera ekonomiko nagusia eta gaur egun berriz baserri-tradizioko herri lasaia dugu.

- **Biztanleak:** 246
- **Euskaldunak:** %83,68

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **53**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Bernardina Aldasoro Ormazabal (1923)



Bernardina Mutiloko Troi baserrian jaio zen. Gurasoak zegamarrak zituen: ama Dintibarrena baserrikoa, eta aita Arakamazpikoa. Sei urterekin hasi zen Mutiloko eskolan ikasten. Komunio txikia bertan egin zuen; eta, zortzi urte zituela, Zumarragako izebaren etxera joan zen bizi izatera. Hango mojetan aritu zen ikasten hamabost urte zituen arte. Gerrak Zumarragan harrapatu zuen, eta elkarrizketan garai hartako hamaika istorio kontatu zizkigun. Hamabost urterekin etxera itzuli zen eta baserriko lanetan aritu zen, hogeita bi urterekin ezkondu zen arte.

Gregorio Aldasoro Telleria *Intxaurzulo* (1928)



Gregorio Mutiloko Intxaurzulo baserrian jaio zen. Bere gurasoak ere Mutilokoak ziren: ama Intxaurzulo bertakoa, eta aita Gaztainerrotakoa. Zortzi urte zituela, Mutiloko eskolan hasi zen Gregorio, eta han ibili zen hamabi urte zituen arte. Seguran, fraideetan ibili zen bi urtez; eta, Beasaingo fraideetan, beste bi urtez. Hamasei urterekin, mekaniko-lanetan hasi zen Pablo Irizarren garajea, Beasainen. Aseguru-kontuak medio, lan hura utzi eta Idiazabalgo lima-lantegian jarri zen lanean. Barberu ere ibili zen urte askoan. Hogeita sei urterekin, Idiazabala ezkondu zen.

Joxe Manuel Arrieta Lekubide *Bernaola* (1935)



Joxe Manuel Arrieta, "Bernaola", Mutiloko Ergoiena auzoko Bernaola baserrian jaio zen 1935ean. Hamalau urte zituela, morroi joan zen Ezkio-ltsasora, bere amaren sendiaren etxera. Bertan zegoela, lan asko egiteaz gain, Zumarragako gau-eskolara ere joan zen eta han ikasi zituen eskola kontuak; izan ere, ordura arte eskolara gutxi joandakoa zen Joxe Manuel. Bost urte morroi egon ondoren, berriz itzuli zen Mutiloara eta baserrian eta baso lanetan aritu zen 40 urterekin Legorretako papertegian lanean hasi zen arte; bertan erretiratu zen. Elkarriketa egiten zaioun 76 urte ditu Bernaolak, herrian bizi da bere emaztea eta seme batekin, baina goizero bere jaiotetxera joaten da, bertako lantxoak egitera.

Simona Arrieta Lekubide (1933)



Mutiloko Ergoiena auzoko Bernaola baserrian jaioa 1933an. Aita zuen jaiotetxe bertakoa; eta ama, berriz, Ezkioko Agerreaundi baserrikoa. Bost anai-arreba ziren familian. Eskolan 13 urtera arte ibili zen Mutiloan. Baserriko bizimodua eraman izan du beti. Elkarriketan beste bi lagunekin batera azaltzen da; [Teresa Telleria](#) eta [Pilar Goia](#)ekin. Simona erdikoa da.

Encarnación Enatarreaga Alustiza (1928)



Mutiloko Errotaberri baserrian jaio zen Encarnación. Aita Mutilokoa zuen, baina ez Errotaberrikoa; ama, berriz, zegamarra zuen. Mutiloko eskolan ibili zen hamabi urte zituen arte. Hura bukatutakoan, baserriko lanetan ibili zen, hogeita zazpi urterekin Mutiloko ostatura ezkondu zen arte. Senarrak Idiazabalgo lima-lantegian egiten zuen lan; eta, ezkondu zirenetik urte gutxira, Idiazabalgo etxe batera joan ziren bizitzera. Elkarriketa Zeraingo bere lagun [Maria Mendizabale](#)kin batera egin zitzaion. Argazkian, ezkerrean agertzen da Encarnación.

Pilar Goia Telleria (1930-2021)



Mutiloan jaio zen 1930ean, Sutegi baserrian. Aita zen Sutegikoa; eta ama, berriz, Mendizabalgoa. Eskolan Mutiloan eta Segurako monjetan ibili zen baina gazterik hasi zen lanean. 14 urte zituenerako, neskame-lanetan hasi zen Zumarragan. Elkarriketan beste bi lagunekin azaltzen da, [Teresa Telleria](#) eta [Simona Arrieta](#)ekin. Pilar ezkerrekoa da.

Ildefonsa Insausti Balda (1929)



Mutiloako Iturrioz baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Gaztelukoa. Lau senidetan zaharrena, baserrian lan asko egitea tokatu zitzaion; hala ere, izan zuen eskolara joateko beta, 14 urte bete arte ibili zen. 25 urte zituela ezkondu eta Legazpiara joan zen bizi izatera, senarrak bertan egiten baitzuen lan.

Antonio Iparragirre Aldasoro (1936)



Antonio jaio baino egun batzuk lehenago, espainiar frontea Mutiloara heldu zen, gerraz babesteko asmoz. Ugalde baserrian jaio beharreko haurra, beraz, Segurako Etxeandin jaio zen. Gurasoak mutiloarrak zituen: aita, Ugalde baserrikoa; eta ama, Gaztainandi errotakoa. Mutiloko eskolan ibili zen komunio txikia egin zuen arte; geroago, Segurako eskolan ibili zen hamahiru urte bete zituen arte; eta, ondoren, Saturrarango seminaria joan zen apaiz izateko asmoz. Hamazazpi urte bete zituenean, bokazio gutxi zuela-eta, seminarioa utzi zuen. Herrira bueltatu eta Idiazabalgo lima-lantegian hasi zen lanean.

Teresa Telleria Goia (1930)



1930ean jaio zen Mutiloako Ergoena auzoko Mendizabalgoikoa baserrian. Ama Zeraingo Urrusti baserrikoa zuen; eta aita, berriz, Mutiloako Mendizabalgoa. Lau senidetan zaharrena da Teresa. Mutiloako eskolan ibili zen 14 urte bete arte; eta, gerora, eskola partikularrak hartu zituen maistra batekin. Baserriko bizimodua eraman izan du beti. Elkarrizketan beste bi lagunekin batera agertzen da, [Simona Arrieta](#) eta [Pilar Goia](#)ekin. Teresa eskuinekoa da.

Alejo Telleria Imaz (1921)



Alejo Mutiloako Andramaiztegi baserrian jaio zen. Gurasoak mutiloarrak zituen. Etxean, telak egiteko makina zuten; eta, eskolara joaten zen arren, aitari lan horretan laguntzen zion umetan. Hamabost urte zituela, bere arrebarekin batera, Lierniko ermita-etxera joan zen bizitzera. Bertan, taberna aurrera ateratzeaz gain, ermitaren mantenuaz arduratzen zen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Lanbideak

1.1. Meatzean ura azaldu zen

- **Hizlaria(k):** Aldasoro Ormazabal, Bernardina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** MTL-006/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:02:19. **Bukatu:** 00:03:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- **Laburpena:** Aitak meatzean egiten zuen lan. Lan txarra zen, eta halako batean ura azaldu omen zen han; horregatik, meatze hartako lana utzi egin behar izan zuten.

Transkripzioa

- Ta ze kontatzen zizun aittak minan ingurun-ta?
- Minen ingurun, ba...
- Lan gogorra zala o...?
- Txarra. Ure azaldu omen zan gero, han. Lehenor urik ez, baiño, gero... lehenor-lehenor Zerañen azaldu emen zien ur horik, eta gero Mutillon zulau zuenen, han irten. Ta gero hareatio minei utzi zioen.
- Ura agertu zalako?
- Bai, ura ikaragarri, e!
- Bai, e?
- Bai.

- Eta ura lur azpitik agertuko zan ura.
- Bai, bai, baiño asko, e.
- Inundau igual.
- Ura uain desaparezzitu da; uain Gabiri alden irten omen zan. Hori gero, este... [zentralak bi] ein zuen.
- Urana.
- Urena, bai. Euzkian fabrikaako, Urretxuko horrek zeuken zentrala, Troitik beheragon.
- Bien, bien.

1.2. Aitaren lanak meatzean aritu ostean

- **Hizlaria(k)**: Aldasoro Ormazabal, Bernardina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: MTL-006/006
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:04:33. **Bukatu**: 00:06:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Aitak meatzean egiten zuen lan, baina lan hura gelditu egin behar izan zutenean, kontratatatu aritu zen. Orduan, trenbide bikoitza egiten aritu zen. Han eta hemen aritu zen lanean, eta azkenean Teruelen hil zen.

Transkripzioa

- Nola zan etxeko jirea, lan asko al zeneuketen etxan?
- Etxan, aitte gero, minek gelditu zienen, kontratatatu ibiltzen zan lanen. Baten Bizkai alden, besten hor, Araban'e bai, ta "doble vía" hau eitten'e bai. Lehen "vía" bakarra emen zan hemen, nortekoa, eta gero "doble vía"n ibili zan gure aitte. Ni ttikie neola, "doble vía"n.
- Ta kontratatatu zertan ibiltzen zan, ba?
- Hartzen zittuen lanak, hola...
- Laguntzailea: Kamiñok ein eta hola.
- Treneko...
- L.: Bai.
- Bien, bien, bien. Eta nola etortzen zan honea "doble vía" itea?
- "Doble vía"?
- Oiñez o biziketan o...?
- Bai, oiñez etorriko zien. "Doble vía"n arten ezkondu baiño lehen, ta hemen apopillo eoten emen zan Urkiztegin, Gabirin, ta geo Motxorrón ta horti [hara akabau] arten. Ta geo Pasaian'e ibili zan, Gallartan'e bai, Zikujañon Araban'e bai...
- L.: Maeztu.
- Maeztu ta hoita're lanen. Ciudad Realen'e bai. Ta atzenen Teruelen hil zan.
- Teruelen?
- Bai.
- Zer zala ta ba, zertan ai zan ba Teruelen?
- Han lanen zebiltzela, afarin bat-eo emen zuen ta hori... batenbatek melokotoi potea bota, ta gurea burun-o hola jo, eta arten jakin ez, baiño gureak diabetes emen zeuken, eta handi seittun...
- L.: O infekzioa sartu o...

- Bai.
- Ta bertan lanen ai zan Teruelen?
- Bai. Ta handi Mutilloati ta...
- L.: Aliaga.
- Aliagan. Jende asko zeuken eamanda beakin, bea ta beakin beste sozio bat Donostikoa're bai, Dorronsoro, ta jende pillea.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Egun berean bi haur jaio ziren Mutiloan (MTL-002/002)

Bera jaio zen egunean, Mutiloan, beste haur bat ere jaio zen; oraindik harremana dute. 30 urte inguru zituela izan zuen Joxe Manuelek kointzidentzia horren berri.

2. Baserriko lanek eskolarako denborarik uzten ez (MTL-002/005)

Zumarragako gau-eskolan aritu zen ikasten morroi zebilen bitartean. Lehen baserrian lan asko egin behar izaten zutenez, ez zuten eskolara joateko astirik izaten.

3. Txoriak eta karramarroak etxeko mahaian (MTL-002/007)

Jolasteko, txori bila joaten ziren. Harrapatutako txoriak jan egiten zituzten. Udan erre kara joaten ziren bainatzera, eta karramarroak harrapatzen zituzten han.

4. Harrobitik soldadutzara (MTL-002/011)

19 urte zituenean, etxera itzuli zen eta Patrizioaren harrobian hasi zen lanean. Harrobiko lana nolakoa izaten zen azaltzen du. Bi urte han eman ostean, soldaduskara joatea tokatu zitzaion, eta ezin izan zuen egur-lanetara joan; hala ere, orain ez du horren penarik, lan gogorra baita hori.

5. Soldadutzan han eta hemen (MTL-002/012)

Irunen egin zuen soldadutza; hala ere, garai batean Donostian egon behar izan zuen, Afrikako gerrara eramango ote zituzten zain. Azkenean, ez zuten joan behar izan. Carrascalen ere izan zen soldadutzan.

6. Meza, anisa eta baserrira lanera berriro (MTL-002/015)

Lehen denak elizara joaten ziren mezara; eta handik irtetean, gizonek anisa edaten zuten. Etxera etorritakoan, baserriko lanei ekin behar izaten zieten. Ganaduak lan asko ematen zuen, baina handik bizi ziren.

7. Errotak itxita eta etxean jan egin behar (MTL-002/017)

Ama Ordiziara joaten zen jeneroa saltzera eta eroztera. Garai hartan, olio oso garestia zen. Umetan zer jaten zuten aipatzen du. Lehen errotak itxita egon ziren, eta guardia zibilak begira egoten ziren norbait harrapatzeko zain. Guardia zibil haiek Segurako kuarteletik etortzen ziren.

8. Txerri-bodak (MTL-002/019)

Txerri-bodaz hitz egiten du. Txerrikiak banatu egiten ziren familiartekoen artean. Urte guztirako mantenua izaten zen hura. Txorizoa eta urdaiazpikoa gorde egiten ziren normalean.

9. Lehengo patatak eta indabak (MTL-002/020)

Lehen bertako hazia erabiltzen zuten patata egiteko; eta patata gutxiago izaten zen orduan. Indabak lehen hobeak ziren; ez zuten indaba faltarik izan.

10. Fabrikan lan egitea errentagarria ez zenekoa (MTL-002/021)

Lehen ez zegoen diru askorik, eta fabrikan lan eginda ateratako soldata oso eskasa izaten zen.

11. Arropa gutxi eta iraunkorra (MTL-002/022)

Lehen arropa Ordizian erosten zuen amak. Arropa gutxi izaten zuten, eta zeukatena haustean, konpondu egiten zuten.

12. Kongregazioko arauak (MTL-002/025)

Lehen elizara joatea oso garrantzitsua zen. Luistarren kongregazioan ibiltzen ziren, gurasoek hala nahi baitzuten. Luistar izateagatik zer egiten zuten aipatzen du. Lehen ezin zen egin dantza lotua; elizara mahuka motzetan ezin zen joan.

13. Lierniko ermita zaintzen (MTL-005/008)

Lierniko ermitara inguruko jendea joaten zen. Alejo arrebarekin bizi zen ermitaren ondoko etxean. Han zer lan zuten aipatzen du.

14. Tela egiteko makina etxean (MTL-005/011)

Etxean tela egiteko makina zeukaten; eta nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

15. Errota zeukaten etxean (MTL-006/008)

Etxean errota zeukaten, eta ingururako irina ehotzen zuten. Lan horren truke ez zuten dirurik jasotzen; bai, ordea, irinaren zati bat. Irin asko egiten zuten garai hartan. Irina ehotzeko prozesua kontatzen du.

16. Etxeko ogia egiteko prozesua (MTL-006/013)

Etxean egiten zuten ogia; nola egiten zuten azaltzen du.

17. Eskolako oroitzapenak (MTL-006/018)

Mutiloko eskolako oroitzapenak aipatzen ditu: maisua katalana zen, oso maisu ona. Eskolara joaterako, etxean ikasi zuen irakurtzen. Hainbat maisuren izenak gogoan ditu.

18. Gerra hasieran, ezkutuan ibili behar (MTL-006/021)

Gerra garaian, eskolan zebilen Bernardina. Gurasoak eta ahizpa bat beste baserri batera joan ziren. Han, janaria falta zitzaien, eta Troi baserrira itzultzen ziren, errota irina egitera. 40 egun pasa zituzten hala.

19. Lehengusua Erreterian zegoen gerra garaian (MTL-006/023)

Lehengusu bat zerbitzatzen zebilen Erreterian, gerra garaian, mediku baten etxean. Medikua karlista zen, eta gorriak Erreteriara sartu zirenean, Frantziara egin zuen alde. Lehengusuari 7 duro eman zizkion ihes egin aurretik.

20. Soldaduek etxe batean eragindako ezbeharra (MTL-006/026)

Gerra garaian, soldaduak baserri batera joan ziren. Atea jo, eta mutil gazterik ez zen etxean. Gizonaren bila zebiltzan; eta ozta-ozta libratu zen hura. Hala ere, aitona zauritu egin zuten bala batekin; eta osaba hil egin zen.

21. Soldaduak etxez etxe jende bila (MTL-006/028)

Soldaduak Aztiriara joan ziren gerra garaian, eta han 6 seme-alaba zituen alarguna eraman nahi izan zuten. Baina, azkenean, haren egoeraz errukitu eta utzi egin zuten. Beste zenbait baserritan, ordea, emakumeak eraman egin zituzten.

22. Emakumeei ilea moztu zieten zigor gisa (MTL-006/030)

Gerran, bonbak bota zituzten Mutiloan. Zenbait lekutan, emakumeei ilea moztu zieten, zigor gisa. Ilea moztu ostean, batzuei galipota bota zieten buruan.

23. Gerrako buruhausteen ostean, familia elkarrekin (MTL-006/034)

Zumarragatik Mutilora joateko, komeriak izan zituen Bernardinak. Orduan, familia elkartu egin zen, bakoitzak bere arazoak baitzituen. Bernardinaren izeba nazionalista zen, eta etxea erre zioten horregatik.

24. Gerrako zauriak sortutako amorrua (MTL-006/035)

Apaolaza autobusak. Gizon bat soldaduek zauritu zuten. Haren amorruaz eta bizipenez hitz egiten du.

25. Azokara hainbat herritara (MTL-006/037)

Askotan joan izan zen Bernardina Oñatira, astoarekin. Baserriko jeneroa saltzen zuen han, larunbateko azokan. Legazpi, Ordizia, Zumarraga eta Donostiara ere joaten ziren. Azokako bezeroak hainbat lekutatik etortzen ziren.

26. Mutiloko lehenengo irratia eta telebista (MTL-006/041)

Mutiloko lehenengo irratia eta telebista beraien etxean izan zuten. Auzoko denak elkartzen ziren orduan irratia entzuteko, eta telebista ikusteko. Irrati klandestinoak entzutea debekatua zegoen.

27. Gerratik babesteko, Segurara (MTL-008/003)

1936ko irailaren 5ean jaio zen Antonio, gerran bete-betean. Espainol mendian, karlisten garaiko trintxera zegoen, eta gorriek hura aprobetxatu zuten, frontea bertan jartzeko. Balak Antonioren familiaren baserriraino iristen zirenez,

familia osoak Segurara joan behar izan zuen babestera; eta Antonio Seguran jaio zen, beraz. Fronte hura kendu zenean, baserrira itzuli ziren.

28. Gerrak harremanak gaiztotu zituen (MTL-008/004)

Gerra garaian, hainbat lagun hil ziren; anaia arteko borroka sortu zen orduan. Familiak eta lagunarteak desegin ziren garai hartan; baina, gerra bukatutakoan, pixkanaka gauzak bere onera itzuli ziren, eta harremanak osatu egin ziren. Aitak esaten zien barruan beti eramateko barkazioa.

29. Ugalde baserriaren historia (MTL-008/005)

Ugalde baserrian bizi izan da Antonio. Aita zen bertakoa; birraitona Idiazabaldik etorri zen bertara lehenengo aldiz, erreterero. Aitonak erosi zuen baserria.

30. Arropa garbitzeko prozesua, lehen (MTL-008/008)

Arropa garbitzeko prozesua deskribatzen du: lixiba-harria zertarako izaten zen eta nola funtzionatzen zuen. Arropa jotzeko harriari ere lixiba-harria deitzen zioten. Errekan nola garbitzen zuten arropa.

31. Etxe zaharraren egitura (MTL-008/010)

Etxea lehen nolakoa zen azaltzen du. Lehengo sukalde zaharra ez dute aldatu, oroitza gisa. Lehen, beheko sua zeukaten; baina gerora ekonomika etorri zen.

32. Ekonomia vs beheko sua (MTL-008/011)

Ekonomia eta beheko sua zeukaten garaian, bakoitza zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Baserriko lanetan aritzen zirenekoa gogoan du.

33. Neguan, artzainak baserrian (MTL-008/012)

Baserrian hainbat artzain egon ziren negua pasatzen: Martin Pipas, Brinkolakoa; Kandido, Zerainen bizi arren, zegamarra; eta Migel zeraindarra. Trukean, artzainek simaurra ematen zien, udaberrian soroari botatzeko. Artzainek baserrian egiten zituzten lanak aipatzen ditu; gazta sukaldean egiten zuten.

34. "Baietz asmatu zer jan duzun gaur?" (MTL-008/015)

Artoa eta garia zeukaten etxean. Eta egunero indabak jaten zituzten. Eskolan adarra jotzen zieten indabekin. Antoniori ez zitzaizkion gustatzen indabak, baina jan egin behar izaten zituen. Harrez gero, ez du jaten babarrunik, arratoiek ere ez omen dute-eta jaten.

35. Afaria bazkaria baina goxoagoa (MTL-008/016)

Afaltzeko, zopa eta patata jaten zuten. Taloa eta esnea jaten zuten bukaeran, eta horrekin tripa beteta izaten zuten lotarako. Taloa gustura jaten zuten, amak azukrearekin gozatzen baitzuen.

36. Eskolara eta seminaria joateko aukera izan zuen (MTL-008/017)

Umetan, Antoniok gutxi laguntzen zuen etxean. Eskolara joaten zen; eta, gerora, 13 urte bete baino lehenago, seminaria joan zen: Saturrarango eta Donostiako seminarioan ikasi zuen.

37. Saturrarango seminarioko gosea (MTL-008/018)

Saturrarango seminarioan gosea pasa zuten, janaria juxtu-juxtu baitzegoen. Gogoan du han ematen zieten janaria.

38. Seminarioko bizimodua eta ikasgaiak (MTL-008/019)

Seminarioan egon zen bitartean, hango eguneroko bizimodua nolakoa zen azaltzen du: errezatu, gosaldu, ikasi... Batxilerraren baliokidea zen hura. Han zer ikasten zuten azaltzen du.

39. Seminariotik irteteko erabakia (MTL-008/020)

Garai hartan, seminariora joateko aukera izatea gauza handia zen. 17 urterekin, seminariotik etxera itzuli zen Antonio. Horretarako arrazoi ugari egon ziren, eta azaldu egiten ditu.

40. Seminarioan, ikasleen laurdenak jarraitzen zuen (MTL-008/021)

Seminarioan, ikasleen laurdena gelditzen zen gutxi gorabehera; beste guztiak atera egiten ziren. Seminarioan, asko errezatzen zuten. Urtean bitan itzultzen ziren etxera, han zeuden bitartean: udan eta Gabonetan.

41. Etxekoek bidalitako paketeak konpartitzeko erabakia (MTL-008/022)

Seminarioan zeudela, etxetik pakete bat bidaltzen zieten. Paketea denon bistan irekitzen zuen Antoniok; behin, intxaur-saltsa bidali zioteneko anekdota kontatzen du. Seminarioan zegoen ikaskide bizkaitar bati ogi zuri ederrak bidaltzen zizkieten; baina denak inbidiatan egoten ziren, ez baitzuen inorekin banatu nahi izaten.

42. Seminarioko oroitzapen onak (MTL-008/024)

Seminarioko irakasleei buruz hitz egiten du: batzuk oso onak ziren, beste batzuk erretxinak. Irakasleak jende ona ziren, ez zegoen makilaren beharrik. Seminarioan kirola egiten zuten, hondartzara joaten ziren... Errekan aingirak harrapatzen aritzen ziren, eta gero sukaldariari ematen zizkieten, jateko presta zitzan.

43. Mutiloko maistra, azkenean koinata (MTL-008/025)

Mutiloko eskola nolakoa zen azaltzen du: maistra bakarra zegoen hirurogeitaka ikaslerentzat. Esperanza Egaña zen maistra, eta Antonioren anaia zaharrenarekin ezkondu zen azkenean.

44. Lehen zigorrak errazago eramaten ziren (MTL-008/026)

Orduko zigorrak aipatzen ditu. Eskolan zigorra jasoz gero, etxean ere jasotzea zeukaten. Lehen, zigorrak errazago eramaten ziren: "astoa makilari jarri egiten omen zaio".

45. Meta handiak eta garia jotzeko makina (MTL-008/029)

Meta handiak auzolanean egiten zituzten. Garia jotzeko makinak nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Jose Alustizarena zen makina hura, eta diru truk uzten zion baserritarrei.

46. Garia pilatutakoan, errotara (MTL-008/030)

Garia jotakoan, garia jasotzen zuten, eta kutxatan gordetzen zuten. 50 kilo inguru pilatzen zituztenean, errotara eramaten zituzten. Orduan, errota asko zeuden. Errota erabiltzeagatik, ordaina nola ematen zuten azaltzen du.

47. Labesua martxan zegoenean (MTL-008/031)

Labesuan astebeterako ogia egiten zuten. Ore-mahaian gordetzen zuten ogia. Etxeko txikientzat, amak forma bereziko opilak egiten zituen. Amak labesua egiten zuen garaian, sagarrak sartzen zituen bertan, erretzeko.

48. Sagarrak saltzeko edo sagardoa egiteko (MTL-008/032)

Lehen sagarrondo asko zituzten beraien lurretan: 300 inguru. Sagar nahikoa izaten zuten bere garaian; baina saltzeko erabiltzen zituzten, eta beheraka joaten ziren. Beraiek ere sagardoa egiten zuten dolarean. Sagardotegiak lehen nolakoak ziren azaltzen du.

49. Sagardoak luzaroan iraun zezan egiten zituztenak (MTL-008/033)

Sagardoak luzaroan irauten zien. Lehenengo, pitarra edaten zuten (sagardoa urarekin nahastuta); gerora, sagardo ona edaten zuten; eta sagardoa heltzen zenean, botilatan sartzen zuten. Sagardoa ez zuten saltzen, baina sagarra bai. Salmenta-prezioa bezeroak erabakitzen zuen lehen ere.

50. Errotara ezkutuan edo eskuko errota etxean (MTL-008/035)

Errotak itxita egon ziren garaian, kontrabandoa egiten zen: zaku txiki batzuk hartu, erreka erreka joan, eta gauez bakarrik lan egiten zuen errota batera eramaten zuten garia. Errota hartan, gizon bat egoten zen txapel zuri-zuriarekin. Errotara joateko beldurra zuenak, baina, eskuko errota erabiltzen zuen; handik lortutako irina errotakoa baino zakarragoa izan arren, gustura jaten zuten. Eskuko errota ugari egon ziren inguruan.

51. Mikeleteen eta guardia zibilen jarrera (MTL-008/037)

Errotara bakoitza bere kabuz joaten zen, isil-isilik. Errotaria zain egoten zen han gauean. Lehen, mikeleteek zaintzen zituzten errotak. Mikelete batzuk ez ziren oso zuzen portatu herritarrei banatu beharreko janariarekin. Mikeleteak nongoak ziren azaltzen du. Gerora, mikelete haiek Kutxan hasi ziren lanean. Mikeleteen ostean, guardia zibilek hartu zituzten haien ardurak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com